



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: GURUTZE

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2020-10-08	19:05	20:30

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Arroxa Lizaso, Iosune Cousillas eta Eneritz Arbelaitz			
Herritarrak: 4	Euskaraz: 7		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 3		Gizonezkoak: 4	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 3	51-65 urte: 3	>66 urte: 1

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Aurkezpena egin da.
2020 urtea	2020ko egoera azaldu da. Koronabirusak izan duen eragina azaldu da.
2021eko aurreikuspena	2021ko aurreikuspena azaldu da. Zein dirusarrera aurreikusten diren eta gastuak.
Auzoa:	<p>Santiago bideko piboteak jarri dira lehengo urtean hala eskatu zelako. Kotxeak bertatik pasatzen ziren.</p> <p>Aparkalekuetan egin behar diren pintaketak dagoeneko esleituta daudela aipatu da eta laster egingo direla. Mugikortasuna murriztua dutenentzat plazak egingo dira.</p> <p>Gurutzeko bidegorria nondik egingo litzatekeen erakutsi da aurkezpeneko planoaren bidez.</p> <p>Aste honetan elkartean egin da bilera bat auzoko beharrak identifikatzeko eta eskaera batzuk egin dira.</p> <ul style="list-style-type: none">· Lehenengoa izan da espaloia egitea bide bazterrean, Gurutzetik Elizaldera. <p>Eskatzen dute aldundiko agiri bat non eta esaten duen ezin dela egin edota ez dutela hori egiteko asmorik. Erantzun da horrelako agiririk ez dagoela.</p>

· Bigarrena zuntz optikoaren gaia. Gurutzera kablez ez da iristen. Bestalde, konexioa askotan hondatuta dago. Auzoko biribilgunean dagoen koadroaren arazoa izan daitekeela aipatu da.

· Hirugarrena, plazan dagoen baranda. Geltokiaren atzetik doan baranda falta da, frontoia alderaino. Eremua zaindu beharko litzateke umeak jolasean ari direnean lasai egon daitezen.

· Laugarrena zebra-bidea. Zebra-bidea beharko litzateke aparkalekutik elkartera. Aldundiaren errepidea dela aipatu da.

Elkarteak egindako eskaerei zuzenean elkarteari erantzungo zaio.

Auzotar batek esan du frontoiko teilatua urak pilatzen direla euri asko egiten duenean. Ur kanalak trabatu egiten direnez, tarteka garbitu beharko litzateke.

Espaloien inguruan eztabaida sortu da. Batek ez du inondik ere ikusten bidegorria egitea. Eskatzen du horren inguruan azterketa bat egitea. Aurrekontua, baliabideak, aukerak... Beste batek dio ezer baino hobe dela bidegorria egitea. Udalak beste urte batean ere adierazi zuen espaloia ez zela egingo zailtasun ekonomiko-teknikoengatik.

Gaztelu baserriaren ondoan pinudi bat dago. Oso egoera txarrean dago eta beldur dira sute bat baldin badago, bertan dauden etxeak arriskuan jar daitezkeelako.

Bestalde, bertan ere, zailtasunak dituzte Internetekin konektatzeko. Ikasten ari direnak eta hor bizi direnak ezinbestekoa dute egunerokotasunean konektatzea. Horren inguruan ekarpenak egin dira. Adibide ezberdinak aipatu dira, beste herrietako ereduak... Udalak horren inguruan orain arte emandako pausoak azaldu ditu, nahiz eta horrekin ez den ezer lortu. Orain Zumaian, adibidez, eredu bat sortu dute eta hori aztertuko du Udalak. Herritar batek aipatu du Areson Izarkom enpresarekin zerbait lortu dutela. Udala Izarkomekin ere bildu da. Gai hau lantzen ari da Udala. Nahiz eta zerbitzua ematea ez den Udalaren eskumena, arazoa dagoela argi ikusten da eta horretan Udalak lagundu behar duela.



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	7,75
bilera ongi gidatu da	7,75
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	7,25
Auzotar kopurua	4,25
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	6,25
Saioa probetxugarria izan al da?	5,75
Egunaren egokitasuna	8,6
Orduaren egokitasuna	8,2
Lekuaren egokitasuna	9